

MAKE-UP MACHINE

8.JARDUERA GARRANTZITSUAK

Gure MakeUp Machine proiektua ondo funtziona dadin, egunero egin behar ditugu hainbat lan garrantzitsu. Lehenengo eta behin, makillaje-makinak toki egokietan jartzen ditugu: jende asko dabilen kaleetan, merkataritza-guneetan edo dendetan. Horrela, erabiltzaileek erraz aurkitzen dituzte eta makina erabiltzeko modua oso intuitiboa da. Makinak beti prest egon daitezen, gure teknikariek eguneroko mantentze-lanak egiten dituzte: garbituta dagoela ziurtatu, bere garbiketa automatikoa ondo dabilela begiratu, makillaje produktuak ez direla agortzen kontrolatu eta zerbait hondatzen bada berehala konpondu. Ideia da bezeroak inoiz ez izatea arazorik eta zerbitzua beti egoera onean egotea.

Baina makina ondo funtzionatzea ez da fisikoa bakarrik; atzean badago lan teknologiko handi bat ere. Gure softwareak erabiltzaileen gustuak eta aurpegiko ezaugarriak gordetzen ditu, eta horri esker makillaje pertsonalizatuagoa eskaini dezakegu. Webgunea eta aplikazioa etengabe hobetzen ditugu, eta sare sozialen bidez bezeroei informazioa ematen diegu berrikuntzei edo kokalekuei buruz. Horrez gain, online jasotzen ditugun eskaerak ondo antolatzen ditugu, dena modu ordenatuan eta seguruan kudeatzeko. Erabiltzaileen datuen pribatutasuna zaintzea funtsezkoa da guretzat, eta horretarako sistema fidagarriak erabiltzen ditugu.

Azken batean, egiten dugun guztia helburu bakar batekin da: bezeroak makina erabiltzen duenean esperientzia ona, eroso eta segurua izatea. Horregatik, gure bezeroarentzako arreta taldea prest dago edozein zalantza edo arazo argitzeko. Guretzat oso garrantzitsua da pertsona bakoitzak bere momentua disfrutatu dezala: makina erraza eta atsegina izatea, makillaje prozesua dibertigarria izatea eta emaitzarekin pozik geratzea. Bezeroen iritzia entzuteak ere asko laguntzen digu etengabe hobetzen jarraitzeko. Proiektu honen muina hori da: teknologia eta estetika uztartzea, eta jendeak bere burua zaintzeko modu berri bat eskaintzea.